

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 896

*113/2023 EBAZPENA, urtarrilaren 19koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez José Agustín Agirre Aranburu jauna zuzendari-gerente kargutik kentzen den Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuan.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 6ko 1244/2022 Ebazpenaren bidez, Jose Agustin Agirre Aranburu jauna izendatu zen Bidasoko ESIko zuzendari-gerente.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Nagusi honek.

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Jose Agustin Agirre Aranburu jauna Bidasoko ESIko zuzendari-gerente kargutik kentzea, berak hala eskatuta, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2023ko urtarrilaren 19ko laneguna amaitzen denetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari eta Bidasoko ESlari.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 19a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.